

Oyón-Oiongo Udala

Erroldatuei euskara ikasteko diru-laguntzak emateko deialdia, 2018 ekitaldia.

1. Deialdia egiten duen erakundea:

Erakundea: Oyón-Oiongo Udala

Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Zinegotzigoa

Espedientea: SubvEuskaltOrd18.

2. Deialdiaren xedea

a. Deskribapena: Oyón-Oionen erroldatutakoei euskaltegi homologatuan euskara ikasteko laguntzak

3. Agiriak eta argibideak lortzea

a. Helbidea: Plaza Nagusia 5.

b. Udalerrria eta posta-kodea: Oyón-Oion 01320

Telefonoa: 945622190

Faxa: 945622183

www.ayuntamientodeoyon.com

Informazioa eskuratzeko azken eguna: 2018ko abuztuaren 16a, osteguna.

Oinarrien informazio guztia: www.ayuntamientodeoyon.com

4. Laguntza-eskaerak aurkeztea:

Aurkezteko azken eguna: 2018ko abuztuaren 16an, 13:00etan.

Aurkeztu beharreko agiriak: ikusi oinarri arautzaileak Udalaren webgunean.

c. Aurkezteko lekua: 3 ataleko berbera.

Oyón-Oionen, 2018ko uztailaren 20an.

Alkatea, Eduardo Terroba.

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN ESKAERA, 2018ko DEIALDIA

Izena: _____ 1. abizena: _____ 2. abizena: _____

NANa: _____ Telefonoa _____ Helbide
elektronikoa _____

Helbidea: Kalea/Plaza _____ Zk.: _____ PK. _____

Datuak jarri dituen pertsonak ez dauka debekurik onuradun izateko, azaroaren 17ko 38/03 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoak, eta Oyón-Oiongo Udalari baimena ematen dio bere izen-abizenak zabaltzeko eta iragarkietan eta bandoetan izen-abizenak eta emandako diru-laguntzaren kopurua sartzeko.

Euskara ikasteko laguntza eskatu du 2018ko programan, eta honako agiri hauek aurkeztu ditu (markatu gurutze batekin):

- Ikastaroa ordaindu izanaren egiaztagiri originala¹.
 - Ikastaroa egin den euskaltegiko ziurtagiria aurkezten dut, non honako hauek dauden jasota:
 - a) Ikaslea identifikatzen duten datuak.
 - b) Matrikulazioagatik ordaindutako zenbatekoa.
 - c) Egindako ikastaroa: maila eta astero izan den eskola-orduen kopurua.
 - d) Ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data.
 - e) Ikaslea ikastarora zer neurritan bertaratu den. Kopurua portzentaje modura adierazi beharko da, emandako orduak eta eskatzaileak harturikoak kontuan izanez.
 - Azkeneko Errenta Aitorpenaren (PFEZ) fotokopiak².
 - Enplegu-bulegoko ziurtagiria, familia-unitateko kideren bat langabe dagoela dioena.
 - Zinpeko adierazpen bat, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek diru-laguntza honen xede bererako emandako laguntza-eskaeren gainekoa; era berean, Oyón-Oiongo Udalari nahitaez jakinarazi behar zaio, jakin bezain laster, ea lortu diren laguntza horiek, diru-laguntza berriz doitzeko, beharrezkoa bada.
=====
 - Oyón-Oiongo Udalari baimena ematen diot euskaltegiko ziurtagiria eskatzeko.
- [] Berariaz adierazten diot aurkakotasuna azken Errenta Aitorpenaren (PFEZ) inguruko agiriak eta datuak kontsultatzeari edo biltzeari.
- [] Berariaz adierazten diot aurkakotasuna langabeziaren inguruko agiriak eta datuak kontsultatzeari edo biltzeari.

Ez da beharrezkoa familia-unitatearen erroldari buruzko agirik aurkeztea, ofizioz sartuko baitute udal-zerbitzuek.

¹ Euskaltegiko matrikularen gaineko agiriak eta ikastaroaren asistentzia eskaerarekin batera aurkez daiteke, edo Oyón-Oiongo Udalari baimena eman bere izenean eskatzeko.

² Errentaren gaineko zergari eta langabezia-egoerari buruzko dokumentazioa eskaerarekin batera aurkeztu edo Oyón-Oiongo Udalari baimena eman beharko zaio, horrek bere izenean eskatzeko.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunek ez dute zertan aurkeztu edozein administrazio egindako agirik, nahiz eta dokumentu horiek ezinbestekoak edo hautazkoak diren dagokion prozeduran, betiere interesdunak baimena ematen badu agiri horiek kontsultatzeko edo biltzeko. **Ulertuko da kontsulta edo eskuratzea baimenduta dagoela, ez bada berariaz jasotzen aurkakotasunik.**

Beste erakunde batzuei egindako laguntza-eskarien zinpeko adierazpen

Izena: _____ 1. abizena: _____ 2. abizena: _____

NANa: _____ Telefonoa _____

Helbidea:

Kalea/Plaza _____ Zk.: ___PK. _____

Telefonoa _____

Zinpean adierazten dut adierazitako laguntzak eskatu dizkiedala aipaturako erakunde publiko edo pribatuei 2017-2018. ikasturtean euskara ikasteko

Laguntza:

Erakundea:

Laguntza:

Erakundea:

Laguntza:

Erakundea:

Era berean, konpromisoa hartzen dut Oyón-Oiongo Udalarari jakinarazteko laguntzak lortu ditudan ala ez, jakin bezain pronto, diru-laguntza berriz doitzeko, beharrezkoa bada.

Oyón-Oionen, 2018ko _____aren _____(e)(a)n.

Diru-laguntzen onuraduna izateko debekurik ez izatearen zinpeko adierazpena

Izena: _____ 1. abizena: _____ 2. abizena: _____

NANa: _____ Telefonoa _____

Helbidea:

Kalea/Plaza _____ Zk.: ___PK. _____

Telefonoa _____

Zinpean adierazten dut ez dudala debekurik diru-laguntzen onuradun izateko, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/03 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoetatik:

1.- Sententzia irmo baten bidez laguntza publikoak edo diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzera zigortuta ez egotea.

2.- Lehiaketa-adierazpena ez eskatu izana, ezein prozeduratan kaudimengabetzat ez jo izana, lehiaketan ez egotea, esku-hartze judizialen menpe ez egotea edo ez egotea desgaituta lehiaketa-legearen arabera, lehiaketaren kalifikazio-sententzian adierazitako desgaitze-epea bukatu aurretik.

3.- Erruduntzat jo direlako administrazioarekin egindako edozein kontratu baliogabetu ez izana.

4.- Erakundeen legezko ordezkariak duten pertsonak ez daudela ondoren aipatzen diren legeek aurreikusitako egoeretako batean: maiatzaren 11ko 12/1995 Legea, Nazioaren Gobernuakideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen Bateriaezintasunari buruzkoa; abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa; ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundeetarako Lege Orokorra, hautatutako karguak arautzen dituen, bertan adierazten diren terminoetan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoa.

5.- Ebazpen irmo batekin diru-laguntzak jasotzeko eskubidea ketzeko zigorrik ez izatea, Diru-laguntzen Lege Orokorraren arabera edo Zerga Lege Orokorraren arabera.

6.- Ez edukitzea martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren (Elkartzeko Eskubidea Arautzekoa) 4. artikuluko 5. eta 6. ataletan aurreikusitako debekatzeko arrazoirik.

Oyón-Oionen, 2018ko _____ aren _____(e)(a)n.

EUSKARA IKASTEKO LANGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, 2018ko PROGRAMA

Erreferentzia: Ogas/SubvEuslkaltOrd18

LEHENENGOA.- Helburua

Oinarri hauen helburua lehiaketakoa ez den konkurrentziaren erregimenean Oyón-Oiongo Udalak emandako diru-laguntzak eskuratzeko modua arautzea da. Laguntza horiek euskara ikastea finantzatzea zuzendurikoak izango dira, familia-unitatean diru-sarrera mugatuak izateagatik hizkuntza ikastea zaila izan dezaketen pertsonen kasuan eta euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza propiozat harturikoa dela kontuan izanda. Ondorioz, herritarrek hura ezagutzeko eskubidea dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan jaso zen moduan. Laguntzak lan egiteko legezko adina dutenei eta beren denboraren zati bat euskara ikasten ematen dutenei emango zaizkie.

Deialdi honen bitartez, diruz lagunduko dira jarraian zehazturiko edozein modutako euskara ikasketak:

- Ikastaroak homologatutako euskaltegietan, 2017ko urriaren 1aren eta 2018ko ekainaren 30aren arteko aldirian, biak barne. Epe hori zenbatuko da laguntza hau jasotzeko.
- Ikastaroak barnetegietan, homologatutako euskaltegietan, epe berean.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira urrutiko ikaskuntzarako ikastaroak edo multimedia sistemen bitartez eginikoak.

Diru-laguntzen emakida aurrekontuak egotearen menpekoa izango da beti, eta eskatzaileak deialdi honen laugarren oinarrian eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen baditu.

Diruz lagundu ahalko den gastua euskara ikastea ikastaroko matrikularen zenbatekoa izango da. Barnetegien kasuan otordu eta ostatu gastuak ere sartuko dira diru-laguntzan. Lekualdaketak, materialak, eta abar bezalako beste mota batzuetako gastuak ez dira inolaz ere kontuan izango.

Eskatzen diren betekizun guztiak betez gero, onuradunak diruz lagun daitekeen aurkeztutako gastuaren % 70 jasoko du beka modura.

Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, laguntzaren zenbatekoa % 70 baino handiagoa izan daiteke, baina ezin du gainditu onuradunak egin dituen gastuen % 85 baino gehiago, pertsona hori langabe egon bada gutxienez 6 hilabetez laguntza hori jasotzeko zenbatu daitekeen epean, eta behar bezala egiaztatu behar du Enplegu Bulegoak bizi den udalerrira bidalitako ziurtagiri baten bidez.

Diru-laguntzak izango dira jarduera horiek finantzatzen laguntzeko emango diren laguntzak, honako lege hauetan ezarritakoaren arabera: otsailaren 7ko 3/97 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntza eta transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-laguntzen Lege Orokorra; Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua; eta aplikatu daitekeen gainerako legeria.

BIGARRENA.- Aurrekontu-zuzkidura

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntza guztien kopuru osoak ezingo du inoiz aurrekontuan zehaztutako kopurua gainditi.

Deialdi honetan aurreikusitako kopurua ez balitz nahikoa aurkeztutako eskaeren eskariari aurre egiteko, laguntzak edo beka hainbanatu egingo dira proportzionalki gehienez kopuru hori lortu arte.

Gastua Oyón-Oiongo Udaleko 2018ko Aurrekontu Orokorren kontura egingo da.

HIRUGARRENA.- Onuradunak

Deialdi honen onuradun izan ahalko dira Oyón-Oionen erroldaturiko pertsona fisiko guztiak lehen oinarrian xedatutako euskara ikastea edozein zentrotan matrikulatuta badaude, honen xede den ikasmalaren bat egiten ari badira, eta, batez ere, deialdi honen laugarren oinarrian zerrendaturiko betekizun guzti-guztiak betetzen badituzte.

Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako inguruabarretan dauden pertsona edo entitateak.

Ezingo dira onuradun izan laguntza jasotzeko zenbatzen den aldia hasten denean nahitaez eskolaratu beharreko adina duten pertsona fisikoak, eskolaratuta egon zein ez egon..

LAUGARRENA.- Diru-laguntza jasotzeko betekizunak

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradun izateko betebeharrak hurrengoak dira:

1. Oyón-Oiongo udalerrian erroldaturik egotea, gutxienez hiru urte jarraituz diruz lagundu beharreko ikastaroaren hasiera data baino lehen.
2. Homologatutako euskaltegi batean euskara ikastaroa egin izana, edo egiten aritzea, laguntza emateko zenbatu daitekeen epean, edo ikastaroa euskaltegi homologatu bateko barnetegian egin izana, epe berean. Ikastaroren batek ez balu zorrozki beteko goian adierazitako epea,

portzentajeen araberako laguntza emango litzaioke, denbora tarte horretan sartutako egun baliadunen arabera. Edonola ere, kanpoan utzitako tarteari dagokion diru-laguntza jasotzeko, deialdi hau eta gero egiten den deialdia erabil daiteke, horrelakorik dagoen kasuan.

3. Gutxienez diruz lagundu beharreko ikastaroan eman diren eskola orduen % 85era joan izana. Horretarako, kontuan izango da kasuan kasuko ikastaroa egiten den euskaltegiko zuzendariak xede honetarako egingo duen banakako txostena.
4. Erantsi den taulan zehaztutako diru-sarrera garbiak ez gainditzea. Horretarako, kontuan izango dira etxebizitza berean erroldaturiko kide kopurua, diruz lagundu beharreko ikastaroaren hasiera baino lehenagoko urtebeteen jarraian.

Familia-unitateko kide kopurua	Urteko diru-sarrera garbiak
1	11.200 €
2	14.320 €
3	17.440 €
4	21.200 €
5	25.280 €
6 edo gehiago	29.280 €

Familia-unitateko diru-sarrera garbiak kalkulatzeko kontuan izango dira eskatzailearen guraso edo tutoreen diru-sarreraren batura, bai eta eskatzailearen ere 1992. urtean edo hortik aurrera jaiotakoa bada. 1991 baino lehenagoko urte batean jaiotakoa bada, eskatzailearen diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan, betiere hura bere familia-unitate propioko kide ez bada. Azken kasu horretan, unitatearen diru-sarrera guztiak hartuko lirateke kontuan. Inguruabarrak direnak direla ere, egin beharreko errentaren gaineko azken aitortpeneko (PFEZ) datuak hartuko dira erreferentzia modura. Ondorioz, gehieneko diru-sarreraren taulan aplikatu beharreko balioa "Konturako ordainketa guztiak" kontzeptua "Kargatutako likidazio oinarri orokorra" izenekoari kentzetik etorritakoa izango da.

5. Oyón-Oiongo Udalak edo beste edozein erakunde edo organo publikok egindako zernahi ziurtapen jardun onartuko dute, aurkeztutako informazioa eta/edo dokumentazioa egiaztatze aldera. Halaber, jarduera horren inguruan eskatzen zaien beste edozein informazio ere aurkeztu beharko dute.
6. Familia-unitateak Oyón-Oiongo Udaleko udal altxortegiko ordainketak egunean dituela egiaztatuko da, bai eta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak ere.
7. Eskatzaileak xede berdinetako jaso edo eskatu ahal izan duen bestelako diru-laguntzen berri eman beharko dio Udalari. Edonola ere, jasotako diru-laguntzen multzoak ezingo du inolaz ere diruz lagun daitekeen zenbatekoa gainditu.
8. Jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, zeren eta egiaztatuak eta kontrolatuak nahi izan baitaitezke.

BOSGARRENA.- Eskabideak eta dokumentazioa aldatzea.

Eskabideak Oyón-Oiongo udaletxeko bulegoetan aurkeztuko dira (Plaza Nagusia 5 - 01320 Oyón-Oion), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

Eskaera berdinean edo hari erantsita hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Eskatzailearen eta/edo haren legezko ordezkariaren identifikazio datuak.

Banku-kontuaren zenbakia, hala badagokio, emandako diru-laguntza ordaindu ahal izateko, emango den ereduari jarraikiz.

Beste erakunde publiko edo pribatu batzuei, diru-laguntza honen xede berdinetarako, egin ahal izan zaizkien laguntza eskaeren edo horien aldetik jaso izandako laguntzen gaineko zinpeko aitortpena. Halaber, derrigorrezkoa izango da Oyón-Oiongo Udala jakinaren gainean jartzea hura lortu den edo lortu ez den jakin bezain laster. Horren helburua diru-laguntza berregokitzea izango da.

Ez da beharrezkoa familia-unitatearen erroldari buruzko dokumentazioa aurkeztea; izan ere, udaleko zerbitzuek ofizioz gehituko dute.

Ikaslea ikastarora zer neurritan bertaratu den jasotzen duen dokumentazioa eskaerarekin batera aurkeztu edo Oyón-Oiongo Udalari baimena eman beharko zaio, horrek bere izenean eskatzeko.

Errentaren gaineko zergari eta langabezia-egoerari buruzko dokumentazioa eskaerarekin batera aurkeztu edo Oyón-Oiongo Udalari baimena eman beharko zaio, horrek bere izenean eskatzeko.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 28.2 artikuluan xedatutakoarekin, interesdunek ez dituzte aurkeztu beharko edozein Administrazio eginiko dokumentuak, dagokion prozeduran dokumentu horiek aurkeztea derrigorrezkoa edo hautazkoa den aintzat hartu gabe; betiere, interesdunak baimena eman badu dokumentu horiek kontsultatu edo biltzeko. Ulertuko da dokumentuak kontsultatzea edo biltzea baimentzen dela prozeduran berariazko aurkaratzerik ez badago edo aplikagarria den lege bereziak berariazko baimena eskatzen ez badu.

Udalari datuak biltzeko baimena ematen ez bazaio, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

Eskatzailearen nahiz haren gurasoen Errentaren gaineko azken Aitorpenaren (PFEZ) fotokopiak baldin eta eskatzailea 1986an edo ondoren jaiotakoa bada. Halaber, emaztearen, senarraren edo izatezko bikotearen aitortpena aurkeztu beharko da 1985 baino lehenago jaiotakoa bada eta familia unitate propioko kide bada. Aipatutako pertsonaren batek, gurasoek, bikoteak zein eskatzaileak berak, ez balu ordaindutako lanik garatuko, Arabako Foru Aldundiak egindako dokumentua aurkeztu beharko da hori ziurtatzeko.

Hala badagokio, Enplegu Bulegoaren ziurtagiria. Bertan jaso beharko da familia-unitateko kideren bat langabezian egon dela, gutxienez, 6 hilabeteko epean, diru-laguntza hau jasotzeko ondoretarako aintzat hartuko den epean.

Ikastaroa egin den euskaltegiko ziurtagiria. Bertan, hurrengoak bilduko dira:

- Ikaslea identifikatzen duten datuak.
- Matrikulazioagatik ordaindutako zenbatekoa.
- Egindako ikastaroa: maila eta astero izan den eskola-orduen kopurua.
- Ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data.
- Ikaslea ikastarora zer neurritan bertaratu den. Kopurua portzentaje modura adierazi beharko da, emandako orduak eta eskatzaileak harturikoak kontuan izanez.

Eskabidean berariaz adieraziko da eskatzaileak baimena ematen diola Oyón-Oiongo Udalari bere izen-abizenak zabaltzeko, eta iragarkietan eta bandoetan bere izen-abizenak eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazteko.

SEIGARRENA.- Epea

Oinarri hauetan araututako laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2018ko abuztuaren 16an (osteguna) amaituko da.

Aurkeztutako dokumentazioan irregularitasun edo gabeziaren bat sumatuko balitz, 10 eguneko epea izango da horiek zuzentzeko, eskabidea eta eskatutako dokumentazioa ebaluatzen denetik aurrera. Adierazitako epe hori igarota eskatzaileak akatsa ebatzi ez badu, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

ZAZPIGARRENA.- Balorazio-irizpideak

Deialdi honen laugarren oinarrian zerrendaturiko betekizunak betetzeagatik eta adierazitako moduan egiaztatzeagatik soilik eskubidea izango du onuradunak kasuan kasuko beka eskuratzeko.

Diru-laguntzen emakida xede horretarako aplikagarria den aurrekontu-esleipenaren arabera izango da.

ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntzen zenbatekoa eta horien gaineko kalkulua

Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du inola ere diruz lagun daitekeen zenbatekoaren % 70 gaindituko, 1. eta 2. oinarrietan aurreikusitako kasuetan izan ezik (langabeziako 6 hilabete edo hainbanaketa).

1. oinarrian adierazi den moduan, diruz lagundu ahalko den gastutzat hartuko da euskara ikasteko ikastaroko matrikularen zenbatekoa. Barnetegien kasuan otordu eta ostatu gastuak ere sartuko dira diru-laguntzan. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira lekualdaketak, materiala, eta abar bezalako beste gastu mota batzuk.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ez ditu 200 euroak gaindituko.

Laguntzaren zenbatekoa onuradunen arteko bertaratze mailaren arabera hainbanatuko da.

BEDERTZIGARRENA.- Eskabideak aztertu eta ebaztea, eta organo eskudunak

Eskaerak jasotako ordenan aztertu eta ebatziko dira, eta beti deialdi honetarako adostutako partidan dagoen gaitasun ekonomikoa gainditu gabe.

Administrazioiko izapide arrazoiengatik, laguntzen onarpena hainbat eskaera sortetan egingo da, hau da, akordio bakoitzean hainbat eskaera onartu ahalko da aldi berean.

Behin betiko ebazpena Alkateari dagokio. Ebazpenean onuradunen zerrenda eta jasoko dituzten zenbatekoak zehaztuko dira; era berean, baztertutako eskaerak eta horiek baztertzeko zergatia jasoko dira.

Ebazpena aurkaratzeko aukera egongo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako kasu eta moduetan. Errekurtsioa ebaztea Alkatearen ardura izango da. Egoki irizten bada, Udalak datuak edo argibideak bildu ahalko ditu aurkeztutako dokumentuen gainean, azterketa eta balorazioa osatze aldera. Datu edo argibide horiek hamar eguneko epean aurkeztuko ez balira, espedientea artxibatzea gerta daiteke.

HAMARGARRENA.- Jakinarazpena eta ordainketa modua

Alkateak ebazpena onartuta, hura jakinarazi egingo zaie eskatzaileei gehienez hamar eguneko epean. Jakinarazpen horretan onuradunaren izena, jaso beharreko zenbatekoa eta hark ordainketa egiteko emandako bankuko kontu zenbakia jasoko da. Halaber, diru-laguntzaren eskaeraren gaitzespenak jakinaraziko dira, horiei ezezkua eman izateko egondako arrazoiekin batera.

Emandako ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Ebazpena emateko eta interesdunari jakinarazteko epea amaitu eta halakorik egin ez bada, administrazio isiltasunaren bidez, eskaera ukatu egin dela ulertuko da.

Deialdi honen aurka eta honen ondoriozko administrazio egintzen aurka errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezartzen diren kasu eta moduetan.

HAMAIKAGARRENA.- Diru-laguntzaren muga

Diru-laguntzaren zenbateko osoak, deialdi honen edo beste baten bitartez, ezingo du onuradunak egindako ikastaroaren kostua gainditu inolaz ere.

Onartu den diru-laguntza berriro aztertu ahal izango da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru-sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrela, diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa gastuen eta diru-sarreraren arteko azkeneko likidazioaren emaitza izango da, inoiz ez superabita.

HAMBIGARRENA.- Kontrola

Diru-laguntza ematen duen organoak ondo irizitako administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak gauzatzen diren ala ez egiaztatzeko.

Onuradunak ikuskapen horretan laguntzeko betebeharra izango du, eskatzen zaizkion datuak emanez.

HAMAHIRUGARRENA.- Diru-laguntza galtzea

Laguntzaren onuradunak beherago zehaztuko diren baldintzetatik baten bat urratzen badu, zinegotzi arduradunak jasotako kopuruak itzultzeko betebeharra proposatuko du, diru-laguntzaren ordainketaren uneko berandutze interesak eta guzti. Hura Oyón-Oiongo Udaleko kontura egindako transferentzia bidez egingo litzateke. Itzulketa proposamen hori Alkatetzaren bitartez bideratuko da, onartua izan dadin.

Diru-laguntzaren galera-espediente irekitzea eta kopurua itzuli behar izatea ekarriko duten kasuak hurrengoak izango dira:

Aurkeztutako eskaera edo dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo xede bereko beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditzea.

Oyón-Oiongo Udalari beste diru-laguntza publiko edo pribatu batzuk jaso izana lehenbailehen ez jakinaraztea, Oyón-Oiongo Udalak kasuan kasuko likidazioa onarturik badu ere.

Eta, oro har, oinarri hauetan ezarritako betebeharetatik edozein urratzea.

HAMALAGARRENA.- Arau-haustea eta zigorrak

Oinarri hauetan ezarritako betekizunetatik edozein urratzeak Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren V. Tituluan adierazitako arau-hausteen erregimenean eta haren administrazio zehapenean sartzea ekarriko du, emandako laguntza (osorik edo zati bat) galtzarekin batera.

Oyón-Oiongo udalariaren funtsen kontura emandako diru-laguntzen erabileraren eta helburuaren gaineko kontrola Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumena da. Halaber, Epaitegiak Euskal Sektore Publikotik diru-laguntzak edo finantza-laguntzak jasotzen dituen pertsona fisiko edo juridiko guztien jardunera zabaltzen du bere kontrola.

HAMABOSGARRENA.- Garapena, interpretazioa eta hedapena

Alkateak egoki irizten dituen ebazpenak emango ditu honako deialdi hau garatze aldera.

Oinarri hauek interpretatzerakoan edozein zalantza badago, organo emaileak ebaztuko du. Deialdi hau jendaurrean jarriko da, udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean (<http://www.ayuntamientodeoyon.com>) argitaratuta.

Oinarrien testu osoa udal-bulegoetan eta webgunean (<http://www.ayuntamientodeoyon.com>) kontsultatu ahal izango da.

Oyón-Oionen, 2018ko uztailaren 23an.

*Diligentzia.- Jasota geratzen da Euskara ikasteko diru-laguntzen oinarri arautzaile hauek onartu egin direla 2018ko uztailaren 19ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.
Udaleko idazkaria: Alfredo S. Sastre de A.*

OINARRI ARAUTZAILEAK